

Prentsa oharra

Nota de prensa



UDALAK HERRITARREN LAGUNTZA ESKATU DU, ITSASGORA BAINO BI ORDU LEHENAGO ETA BI ORDU GEROAGO KONTXAN EZ SARTZEKO

Datorren astelehenetik aurrera, maiatzaren 25etik aurrera, deseskaladaren 2. fasean sartzearekin batera, hondartzak eguzkia hartzeko edo bainatzeko erabil daitezke, betiere pertsonen arteko segurtasun-distantziak errespetatuz, gutxienez bi metrokoak.

Marisol Garmendia Gune Publikoko zinegotziak adierazi duenez, Kontxako hondartzaren kasuan mareek baldintzatzen dute espazioa. "Uneoro arduraz jokatzeko eskatzen diegu herritarrei, osasun krisiak indarrean jarraitzen duela jakinda".

Zentzu horretan, "Itsasgora baino bi ordu lehenago eta bi ordu geroago Kontxako hondartzan ez egoteko" eskatu die Garmendiak erabiltzaileei, "Pertsonen arteko beharrezko distantziak ezin direlako bermatu".

Denboraldi ofiziala ez dago martxan eta, beraz, ez da sorospen zerbitzurik, kabinarik, pixatokirik eta abar egongo. "Gure hondartzak, Kontxa bereziki, arazo ez bihurtzeko herritar guztien kontzientziazioa eta erantzukizuna azpimarratzen dugu", adierazi du zinegotziak. Zurriola eta Ondarreta hondartzak ez dute sarbide mugatu hori izango.

Gainera, Kontxako sarbidea mugatuta egongo da. "Eguzki klubaren parean dauden arrapala eta eskaileretatik baino ezin izango da hondartzara sartu eta bertatik irten. Gainerako eskailerak itxita egongo dira ", esan du Garmendiak. Lehenengo arrapala, Cervantes plazaren ondoan dagoena, sarrera eta irteerakoa izango da, hesien bidez behar bezala bereizita eta norabidearen berri ematen duten karteekin. Erlojuen gunean, udaletxetik hurbilen dagoen arrapala jaitsi egingo da, eta Perlatik hurbilen dagoena, berriz, irten. Eskailera ireki bakarrak, Eguzkiren ondoan, baranda zentrala dute eta, beraz, bi norabideak izango dituzte.

Udalak jakinarazi du hondartzek, etengabe itxitako eskaileretan izan ezik, ez dutela itxitura fisikorik izango, eta, beste behin ere, hondartzek ondo funtzionatzeko erantzukizuna eskatu du. Udaltzaingoak esku hartu ahal izango du neurri horiek ageri-agerian betetzen ez badira eta guztien segurtasuna bermatzeko.

Prentsa oharra

Nota de prensa

DATORREN ASTEKO ORDUTEGIAK KONTXAKO HONDARTZAN

DÍA	1ª PLEAMAR	Recomendación	2ª PLEAMAR	Recomendación
Lunes 25	06.56 horas	No acceder desde las 04.56 hasta las 08.56	19.09 horas	No acceder desde las 17.09 hasta las 21.09
Martes 26	07.38 horas	No acceder desde las 05.38 hasta las 09.38	19.50 horas	No acceder desde las 17.50 hasta las 21.50
Miércoles 27	08.24 horas	No acceder desde las 06.24 hasta las 10.24	20.38 horas	No acceder desde las 18.38 hasta las 22.38
Jueves 28	09.18 horas	No acceder desde las 07.18 hasta las 11.18	21.34 horas	No acceder desde las 19.34 hasta las 23.34
Viernes 29	10.20 horas	No acceder desde las 08.20 hasta las 12.20	22.39 horas	No acceder desde las 20.39 hasta las 00.39
Sábado 30	11.28 horas	No acceder desde las 09.28 hasta las 13.28	23.50 horas	No acceder desde las 21.50 hasta las 01.50